

**EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA**

2018-12-03 Donostia-San Sebastián 03-12-2018

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Sailburuok, herri agintariok, jaun-andreok, aho bizi eta belarri prest zaretenok, arratsalde on eta eskerrik asko gurekin izateagatik, Euskararen Nazioarteko Eguna elkarrekin ospatzeagatik.

Duela urtebete, erabat ezezaguna, iradokitzailea eta erakargarria zen hitz bat ezagutu genuen: **“Euskaraldia”**. **Egun hartan ere, Gasteizko Europa Jauregian, hiru ideia irudikatu genituen elkarrekin:**

- Bat: uniformizazio garai hauetan, lehen balio zuenak gaur ez du balio. Konpromisoa eta kemena behar dugu geureari eusteko;
- Bi: haizea ez dugu beti alde izango, eta traineru onenetan bezala, elkarrekin egin beharko dugu arraun; eta
- Hiru: inoiz izan ditugun baldintzarik onenak ditugu denok aldi berean arraun egiteko.

Ondorio batera iritsi ginen; hitz bakar, berezi eta berri bat erabiliz: **“Euskaraldia.”**

Gaur, Euskaraldiaren hamaikagarren egunean, diagnosian asmatu genuela esan daiteke: **euskarak bizigarri bat behar zuen, eta hori bera izan da Euskaraldia.**

Herriz herri, eskuz esku, hitzez hitz, euskararen aldeko sare erraldoi bat josi dugu. Milaka eta milaka herritarrek bat egin dute ariketa sozial handi honekin.

**Ez da ohikoa, ez da erraza, ez da nolanhikoa, Euskaraldiak lortu duen babesa.**

Euskaraldiari esker euskara gehiago entzun dugu, gure artean gehiago hitz egin dugu eta hizkuntza ohiturak aldatzeko lehen hitza eman dugu.

Erakunde, euskaltzale, eragile eta gizarte osoaren babesa lortu du.

Euskaraldiak batu egin gaituela esan dezakegu. Euskararen lurralde guztietan sustraitu da.

Bagenuen aspaldidanik nahi eta asmo hau, **bagenuen elkartzeko eta elkarrekin aritzeko behar hau.**

Euskaraldiak hizkuntza ohiturak aldatzeko, inertziak apurtzeko, euskarazko hizkuntza erabilera bultzatzeko, gure “hizkuntz zaharra” gaztetzeko baliogarria dela erakutsi du.

Euskaraldiak “aho bizi” eta “belarri prest” ugari ezagutzeko aukera eman digu.

Bihar Euskaraldiaren hamabigarren eguna helduko da, agian, garrantzitsuena. Bihar ere, bihartik aurrera ere, egun hauetan izan dugun **jarrerari eusteko gonbita luzatu nahi dugu.**

Duela 100 urte Euskaltzaindia jaio zen. Duela 50 urte euskara batua jaio zen. **Aurten Euskaraldia jaio da.** Pauso bakoitzak beste bat ekarri du eta gehiago ekarriko ditu.

Gora ta gora beti..  
Gora Euskaraldia...  
Euskarak bizi gaitu...  
Eta bizi bedi!

Eskerrik asko